

GUaiXE.net



Martina film laburraren **aurre estreinaldia** bihar



Kultura >> 15

Nafarroako Hobien Mapan Sakanako 10 toki agertzen dira. **Haietako bakar bat besterik ez dago ikertuta**



Sakanerria >> 10



Itxialdian egon ziren hautetsiekin batera sakandarrek parte hartu zuten larunbatean Olatzagutian egindako kontzentrazioan. ERKUDEN RUIZ BARROSO

Haurrak hazi eta irabazi D ereduan

Sakanako Mankomunitateak gurasoei seme-alabak D ereduan matrikulatzeko deia egin die. Otsailaren 1etik 8ra arte eman daiteke izena ikastetxeetan

>> 8

2012ak 201 langabe utzi zituen Sakanan

Duela urte bat baino 127 gizonezko eta 74 emakumezko gehiago daude izena emanda Nafarroako Enplegu Zerbitzuan

>> 9

“Ez dira gure gaineratik pasako”

>> 7

Sakantzen Sarea, zabalduz, Sakana landuz

>> 5

Mila pertsona Sunsundeguiko langileekin

>> 10

Eneko Lazkoz Donostiako Bertso Egunean

Kursaalgo areto nagusian ariko da beste 11 bertsolarirekin

>> 14

BIHOTZETIK HEZITA ETORKIZUNA ERAIKITZEN DUGU ALTSASUKO KORAZONISTAK

URTARRILAREN 24EAN eta 25EAN 15:30ETATIK 16:30ERA

1 eta 2 Urteko Gela: **Elebiduna.**

Haur Hezkuntza: **Elebiduna eta Ingelerari hasiera eman.**

Lehen Hezkuntza: **Dena EUSKARAZ (Matematika ezik)**

Bigarren Hezkuntza: **Hiru hizkuntza.**

Felix Arano etorbidea,12

Tfnoa.: 948 56 20 35 Altsasu



ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Izan Torres Lazkoz
Urte 1. ZORIONAK eta muxu haundi haundi bet potolito!



Javier Malo ZORIONAK!!
Oso egun politta pasa dezazula. Muxu asko, etxeokak.



Beñat Gomez Maiza
6 urte betetzen ditu 27an. Besarkada handi bat zure familia eta lagunen partez.



June
Unibertsoan urrutien dagoen izarreraino eta bueltan maite zaitugu. Segi beti bezain ederra eta maitagarria. Janire, Aitatxo eta Amatxo."



Aiora eta Nahia Ijurko Legarra ZORIONAK PRINTZESAK!
Muxu erraldoi bat etxeokoen partez.



Miren Sarasola ZORIONAK saltsera!!
Dagoeneko 3 urte bete dituzu! Muxu handi bat Jon, aita eta amaren partez



Aritz Gurmind Gabari ZORIONAK ZURE 8.URTEBETETZEAN!!!
Asko maite zaitugu! Aita, Ama, Asier eta Alain.



Xele Jaka
Oso ongi yondu giñen. ZORIONAK!!!



Alain Bakaikoa ZORIONAK poitite!!!
Baina zein handia...maite zaitugu.



ZORIONAK Naroa!!
Muxu asko zure familiaren partez.



Maria Higuero
Oso egun politta pasa dezazula eta kintadaz gozatu!! Muxu bat aita eta semearen partetik.

gaztetxean eta ilbeltzaren 27an, igandean, 19:30ean Irurtzango Pikuxar euskal txokoan. **Sakanako asanblada libertarioa.**

Zinema

Arrugas. Ilbeltzaren 25ean, ostiralean, 21:45ean, eta ilbeltzaren 27an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

La vida de Pi. Ilbeltzaren 25ean, ostiralean, 22:00etan, eta ilbeltzaren 27an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Gazta zati bat. Ilbeltzaren 27an, domekan, 18:30ean Urdiaingo herriaren etxean. **Udala.**

Hotel Transilvania. Ilbeltzaren 27an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Film laburrak

Martina. Ilbeltzaren 26an, larunbatean, 19:30ean (euskaraz) eta 20:30ean (gaztelaniaz) Irurtzango kultur etxean.

Mendi irteera

Bardeak. Ilbeltzaren 27an, igandean, 7:00etan Olatzagutiatik abiatuko da autobusa. **Sakanako Mendizaleak.**

Txirindula irteerak

Lubierri-Iratzako bordak. Ilbeltzaren 27an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20ean Bioitza kanpian. 49 km. **Burunda Mendi Bizikleta taldea.**

Erakusketak

No somos distintos. Otsailaren 3ra, astez 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean. **Motxila 21.**

Hitzaldiak

Olaztiko Portlanden erraustuko diren hondakinen ondorioak. Legeak eta jokaera desberdinak. Ilbeltzaren 29an, asteartean, 19:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Hizlaria: Fernando Palacios izango da hizlaria. CESIC-eko kidea, Ikerketa zientifikoen Kontseilu Goreneko kidea.**

Txioka, informazio hitzaldiak. Ilbeltzaren 29an, asteartean, 18:00etan Altsasuko Txioka haur eskolan. Ilbeltzaren 30ean, asteazkenean, 18:00etan Urdiaingo udaletxean eta ilbeltzaren 31n, ostegunean, Olatzagutiko kultur etxean.

Literatura

Marcas de nacimiento. Nancy Huston. Ilbeltzaren 25ean, ostegunean, 21:00etan Olatzagutiko udal liburategian. **Literatura tertulia.**

Tailerrak

Gure seme-alabekin egoera zailak nola kudeatu. Ilbeltzaren 29an, asteartean, 15:00etatik 16:30era Urdiaingo udaletxean. **Gizarte zerbitzuak.**

Euskal sukaldaritza. Ilbeltzaren 26an, larunbatean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Mus txapelketa azkarra. Ilbeltzaren 25ean, ostiralean, 22:30ean Irurtzango Pikuxar euskal txokoan. Ordu bat lehenago izena eman.

Ohiko txerri hiltzea. Ilbeltzaren 26an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko La Encina elkartearen.

Euskal Herriko mus txapelketako herrietako kanporaketak. Ilbeltzaren 26an, larunbatean, 16:00etan Etxarri Aranazko Karikestu Elkartearen, Urdiaingo Mareo tabernan eta Altsasuko Zubiondo elkartearen.

Emakumeok bertoputzen. Ilbeltzaren 30ean, asteazkenean, 17:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Andrekunde. Ilbeltzaren 31n, ostegunean, iluntzean Etxarri Aranatz. **Kintoak, inauteri lan taldea eta udala.**

Zintzarri entsegua. Ilbeltzaren 29an, asteartean, 19:30ean Altsasuko Musika Eskolan. Momotxoroen dantzan parte hartu nahi dutenendako.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 25ean, ostiralean, 20:00etan, Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 27an, domekan, 20:00etan, Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Ilbeltzaren 28an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

ilbeltzak

25-31

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Reciclart. Ilbeltzaren 26an, larunbatean, 20:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Toom Pak konpainia.**

Doctor Sax + Bizardunak. Ilbeltzaren 26an, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

Fight to life + Los Txumatxos. Ilbeltzaren 26an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean. **Sakanako Langabetuen Asanbladaren alde.**

Antzerkia

Una + uno = tres. Ilbeltzaren 25ean, ostiralean, 22:30ean, Olatzagutiko kultur etxean. **Cobaya teatro.**

Lara Larika. Ilbeltzaren 27an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Zirika zirkus.**

¿Morirse? no es para tanto. Ilbeltzaren 27an, igandean, 19:00etan Irurtzango kultur etxean. **Atikus teatro eta antzerki tailerrak.**

Ipuin kontalaria

Aldrebeskeriak eta beste kontu batzuk. Ilbeltzaren 25ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Eñaut Gorbea.**

Proiektzioa

Hezkuntza alternatiboko bideo emanaldia. Ilbeltzaren 25ean, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko

belexe *online*
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiraleko 9:30etik 10:30era SAIOA

Asteburuko agenda

Asteko errepassoa: albisteak, kirolak, Sakantzen Sareaz, errausketa, San Saastinak...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!



Sakanako eskola publikoa

hauxe da zure aukera



OLAZTI:
DOMINGO BADOS HLHIP

Nagusia 16
31809 Olazti
Tfnoa. eta faxa: 948 563 307
E-maila: cpolazag@educacion.navarra.es



ALTSASU:
ZELANDI IP

Zelandi 18
31800 Alsasu
Tfnoa.: 948 564 839 - Faxa: 948 564 011
E-maila: cpalsasu@educacion.navarra.es
<http://centros.educacion.navarra.es/cpzelandi>



URDIAIN:
URDIAINGO HERRI ESKOLA

Elizazpi 4
31810 Urdiain
Tfnoa eta faxa: 948 468 345
E-maila: cpurdiai@educacion.navarra.es



ITURMENDI:
ARRANO BELTZA IP

Elizalde, 4
31810 Iturmendi
Tfnoa eta faxa: 948 563 414
E-maila: cpiturme@educacion.navarra.es



ETXARRI ARANATZ:
SAN DONATO IP

Utzubar txiki zg
31820 Etxarri Aranatz
Tfnoa: 948 567 003
E-maila: cpetxarr@educacion.navarra.es
www.etxarrioeskola.com



ARBIZU:
ARBIZUKO HERRI ESKOLA

Kale Nagusia, 1
31839 Arbizu
Tfnoa: 948 460 763
E-maila: cparbizu@educacion.navarra.es
www.arbizukoherrieskola.blogspot.com.es



LAKUNTZA:
LUIS FUENTES IP

Abarrategi zg
31830 Lakuntza
Tfnoa eta faxa: 948 576 020
E-maila: cplakunt@educacion.navarra.es



UHARTE ARAKIL:
SAN MIGUEL IP

San Juan Olaza zg
31840 Uharte Arakil
Tfnoa.: 948 567 100
E-maila: cpuharte@educacion.navarra.es



IRURTZUN:
ATAKONDOA IP

Ardubil kalea z/g
31860 Irurtzun
Tfnoa: 948 500 228 • Faxa: 948 506 138
E-maila: cpirurtz@educacion.navarra.es
Web orria: centros.educacion.navarra.es/atakondoa

Aurrenematrikula epea: otsailaren 1etik 8ra
Sakanako Ikastetxe Publikoak Datu ofizialak: www.educacion.navarra.es





Aingeru Mikeo

Amalurra, esnatu !!!

astekoa

Ihote garaia eta Agata eguna gainean ditugu. Aspalditik datozen ohiturei eta sinesmenei jarraiki, ospakizun egunak izanen dira hauek ere.

Ikerlariak diote ohitura hauen sustrai sakonak orain dela 35.000 urte arterainokoak izaten ahal direla, artzantza Euskalerrian ezarri zen garaitik gureganako-

ak. Goi Paleolito aspaldi hartatik datozkigun kultur esperientzietan eta jakintza bideetan oinarrituak dira bizitzaren kontzeptu sakonenak eta ohitura ederrenak.

Urte sasoi hau Amalurrari deia egiteko sasoi da negualdiko lozorrotik esnatu dadin, simaurra botaz Olaztin bezala, goldea era-

biliz Altsasun, joaldunen zalaparta erritmikoarekin Ituren eta Zubietan, makilarekin lurra joz Agata egunean, eta abar. Amalurraren emankortasunetik bizi ziren antzinako euskaldunak, bera baitzen izaki guztien bizileku eta babes, berezko indarra duena eta natura guztiaren sortzailea. Amalurraren denene etxe

handia eta bizitokia, oinarrizko bizibidea ematen ziena.

Alabaina, azkeneko hamarkada hauetan, Amalurrarekiko izan den bateratasunetik aldenduz eta begirunea galduz, desarrollismo basatia, indibidualismoa, eta kontsumismo suntsitzailea garatu da. Txikizioa eta kutsadura. Biziraupena bera arrisku larrian

paratuta, gizartean fraktura sozial eta ekonomiko mingarria ezarri duena.

Horrexegatik, egun hauek Amalurrarekiko bateratasuna berrietzeko izan daitezela, arbasoek egiten zuten bezala, eta ospatzeko eta gozatzeko.

aingerumi@gmail.com

barrutik kanpora Hausnarketa

Amaitu berria den urtea, adinekoen, jubilatuen urtea izan da. Hau da: adinekoen, jubilatuen eskubideak aldarrikatu eta beharazteko urtea. Ez dugu egun bat izan, urte osoa baizik. Bagenekien? Etekinak? Egin ditugu egin beharrak, lortu ditugu helburuak?

Orokorrean arrakasta ahula izan duelakoan gaude. Ez du arrakasta handirik sortu gizarte mailan, ez adinekoetan eta ez, zoritxarrez, jubilatuen elkartean. Pasotismoa gurera iritsi dela ematen du. Konzientziario kanpainariek ez da ikusi, mugimendurik ez, gaiarekin lotutako ekin-

tzarik ere ez. Etorri den bidetik joan da eta gure egoerak okerre-eragin du: pobregoa gara, erosketa ahalmena galtzen ari gara, zerbitzuak desagertzen, zentro publikoak pribatizatzen.

Baina geldirik, lo eta mutu egon ez direnak ere badira. Langileak zirenean borrokaren bidez lortu zituzten eskubideak dituzte galdu nahi eta borrokaren bidez defendatzeko prest daude. Mugitzen hasi da jubilatua, kolektibo ezberdinak sortzen ari dira. Nabarmena da konzentrazioe-

tan, manifestan... izan den parte hartzaileen gorakada.

Borroka hau indarrak metatuz egiten ari gara. Oso garbi dago bakoitza bere aldetik joaten bada ez dagoela ezer lortzerik. Ikuspegi honetatik begiratuta harrera ona izan du sortu den koordinakunde berriak, "KRISIAREN AURREAN JUBILATU ETA ADIN NAGUSIKOEN KOORDINAKUNDEA". Bere egitekoa: gure egoera aztertu, gizarteratu, eskubideak aldarrikatu, ekin-tzak antolatu.... Dinamika polita

sortzen ari da. Abenduaren 12an gure egoera eta aldarrikapenak jasotzen zituen txosten bat aurkeztu zuten Nafarroako Parlamentuan.

Adineko eta jubilatuei luzatzen dizuegu deia "SASOIATIK": konzientziatu, mugitu, organizatu gaituzten, gurea dena defendatu beharra daukagu. Lana eta borrokaren arabera lortuko dugueskubideak eta ongizatea babestea.

Ona eta oparoa izan dadila guretzat urte berria.

Sasoi

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU eginen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

XXI. mendeko 4 zaldun apokaliptikoak

Arturo Carreño Parras
Altsasuko EBko zinegotzia

Eskolako eta institutuko erlijio klaseetatik (1955 eta 1965 urteak) gogoan ditut Apokalipsiko zaldunak 4 zirela: Izurria, Gerra, Gosea

eta Heriotza. Txuriago edo ez ziren zaldien ganean guztiak ere. Gaur, XXI. mendean eta krisi eta kaos betean, 4 zaldun apokaliptikoak hauek lirateke: isilarazi nahi gaituen eskuin zaharkitu eta kontserbadorea; bazter guztietatik itoak gaituzten Banka eta Kapitala; bidegabekeria eta

ustelkeria, lapurtutakoa itzultzen ez eta kartzelara joaten ez diren politiko eta bestelako txorizoen berri dugu egunero eta, azkenik, Eliza kontserbadorea eta atzerakoia, zergarik ordaintzen ez duena, OHZriek ez du aitortzen, abortuen eta homosexualitatearen kontra dago eta abar.

Hala eta guztiz ere, gizartea jo ta ke aldatzen ari da eta burua jasotzean, dudarik gabe ahalegin handiarekin eginen dugu, bai politikariek, bai Bankak, bai Justiziak baita Elizak ere txipak aldatuko dituzte. Zeren bestela, jakituna eta koherentea den Gizarteak egin eta egiten ari

diren kalte guztiagatik kontuak eskatuko dizkie. 6 milioi langabetu, gosea pasatzen eta premiazko beharrak ase gabe dituen jende asko, gazteriaren erdia enplegurik gabe eta horrela, etsitakoen, etxe-gabetuen, kaleratuen, pribatizazioen eta abarren kontaktuzun luzea.

Guaixe erakusleiho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakusleihoetan Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan gutxienez Guaixea egon den 3 komertzioaren izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo Bierriken bulegora ekarri
Foru plaza 23, Altsasu

Saria Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea



gora/behera

↑ D eredua
Hiru hizkuntza ikasteko haurrek duten eskaintza onena.

↓ Langabezia
Bat gehiago drama bat da. Pasa den urtean 201 gehitu zitzaizkion aurretik zeuden langabetuei.

Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net
GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • guaixe@guaixe.net
PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa
Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa
Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea
Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso
Zuzentzailea: Oihana Zubeldia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 4.500 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a



OLAZTIKO INDUSTRIALDEKO PREZIOAK:
Akinorruti industrialdean Nafarroako Go-
bernuak duen lur-sailen salmentarako
prezioa dagoen bezala mantenduko da: 53

euro (BEZ kanpo) metro karratua. Enpre-
sak ezartzeko erraztasunak emateko go-
bernuak 2008tik ez du prezioa igo.


sakanerria >>

>>

SAKANA

Munduan barnako musika bidaia

Sakanan bertan makina bat kultu-
retako ordezkariak izanik, mun-
duari buelta txiki musikatu bat emateko aukera eman zuen Munduko Musikak kontzertuak larunbatean. Rafael Amor kantari argentinarraren *No me llames extranjero* kantua ardatz izanda, publikoaren gogoko izan zen emanaldi goxoa eskaini zuten musikariek igandean Etxarri Aranatzan. Guztia sakandar berrien lekukotasunean batera. Beste bat egiteko gogoz ere gelditu dira Irurtzango musika eskolako haurrak, Kituka Burundi, Djembe taldea, Youssef Kejji eta Maider Ansa.



Kituka Burundikoak eskenatokia.

Sarea zabalduz, Sakana landuz

Sakantzen Sareak ziurrenik maiztzean egingen du III. Lan Jardunaldia. Sareko kideei zuzendutako prestakuntza saioa izanen da. Landuko diren gaietan interesa duten sakandarrei eskainitako saioak ere izanen dira. Halakoa izan zen larunbatean egindako bigarren saioa.

Bukatu berrikan, lehen balazio positiboa egin zuen Sakantzen Sareak. 50 bat pertonek parte hartu zuten. Jon Etxeberriak esan digunez, "guretzat nahikoa. Gargarrilean egin genuena bezain jendetsua ez da izan. Ezzen asmoa hainbeste jende etortzea. Baizik eta gai jakinen inguruan aritzea. Eta nik uste jendea oso pozik ateratela".

Aurpegi berri asko bildu ziren tailerretan larunbatean, eta aurrekoarekin alderatuta adinaren batz bestekoak gora egin zuen. Sareko kideak ere harrituta gelditu ziren aurpegi berri asko ikusi zituztelako. "Ona da sarearen dako. Kontaktu sarea handitzen dugulako. Ekarri ditugun hitzaldiek zerikusia izan dute ere".

Esaterako, ANELeko (Asociación Navarra de Empresas Laborales) kide batek kooperatibak nola sortu azaldu zuen (pasa den urtean 30 bat sortzen lagundu zuten). "Krisiari hobekien eutsi dioten enpresak izan dira. Etorkizunari begira kooperatibak sortzea potentzia handi bat izan daiteke. Uste dut jendeari gustatu zaiola, kooperatiba izan daitekeela orain, krisi



Sarea aurrera doa

Sareko kideek larunbatean sakandarrei laguntza deia egin zieten. "Jende gehiagok parte hartzea behar dugu. Hasieratik esan dugu guretzat garrantzitsua da gizartea dela, Sakana jendea. Munduko diru guztiarekin ere Sakantzen Sarearen helburuak ezin izanen ziren aurrera joan pertsonak ez badaude sartuta". Gonbitea luzatu zieten haien enpresak erakitzeke, egiteko gogoz dauden pertsonari. "Sakantzen Sareara etortzeko inolako konpromisorik gabe. Eta ezagutu, aukerak dauden edo ez. Eta hortik aurrera Sakanan bizi eta lan egiteko". www.sakantzen.org da harremanetarako bidea.

ción Navarra de Empresas Laborales) kide batek kooperatibak nola sortu azaldu zuen (pasa den urtean 30 bat sortzen lagundu zuten). "Krisiari hobekien eutsi dioten enpresak izan dira. Etorkizunari begira kooperatibak sortzea potentzia handi bat izan daiteke. Uste dut jendeari gustatu zaiola, kooperatiba izan daitekeela orain, krisi

garaietan, hasteko eta eusteko modua.

Tailerak

Kirola eta turismo tailerra gainontzekoak ez bezalakoa izan zen. "Industriak behera egin duenean ikusten dugu turismoa beste lan ildo bat jorratzeko izugarriko aukera izan daitekeela sakandarrendako" esan digu Etxeberriak.

Aldez aurretik hitzartutako jendeak parte hartu zuen Sakanako Mankomunitateko Garapen Agentziako Iker Manterola teknikariarekin batera. Guztien artean udako turismo plana lantzen hasi ziren larunbatean. Guztia ontzeko biltzen jarraituko dute.

Energia berriztagarrien inguruan Patxi Lakuntzak ibarrak dituen aukeren berri eman zuen. "Sakandarrek nola aprobetxatzea dezagun gure ingurua energia sortzeko eta ez kanpoan erosteko". Ideia horrekin lotuta aurreko osteguneko Energia Gara eta Goiener energia kooperatiben berri emateko hitzaldia antolatutako Sakantzenek, 80 bat pertsona bildu zituen.

Arlo sozialean REA Seko (Red de Economía Alternativa y Solidaria) kide batek haien jardun zabala azaldu du. Ikuspuntu ezberdinetatik iritzi truke aberatsa sortu zen tailerretan, interesgarria. Kerobiako musikariek autokudeaketaren haien esperientzia azaldu zuten arteari eskainitako tailerretan. Dora Salazarrek ezin izan zuten agertu.



Andra
Mari
Ikastola
IKASTOLA

INIGO ARITZA IKASTOLA

TXIOKA
Ikastola
ALTSASU

ONGI ETORRI
IKASTOLARA

» Etxarri Aranatz

Herri galdeketa egiteko eskaria aurkeztuko du gaur Etxarri 2012k

Autodeterminazio eskubidearen inguruko galdeketa egin nahi du aurten

Gaur eguerdian Etxarri 2012 ekimeneko kideek Etxarri Aranatzko udaletxean autodeterminazio eskubidearen inguruan etxarriarrei galdera egiteko eskaera erregistratuko dute. Galdeketa horiek arautzen dituen Foru Legearen

arabera, Etxarriko erroldaren %10en sinadurak beharko dira Nafarroako Gobernuari galdeketa egitea eskatzeko. Ekimenak honako galdera egin nahi die etxarriarrei: *Ados al zaude Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerria izanda, Europako estatu independente berri baten parte izate-arekin?*



Abenduaren 3an ezagutarazi zuten.

San antondarrak Sakanan



Kofradeendako Karmenek, Anparok eta Blankik sukaldatu zuten. A. LIZARRAGA.



Elizkizunaren ondoren, Bakaikuko kofradeak. NEREA MAZKIARAN



Iturmendiko sanantondarrak.



Meza eta gero, urdiaindarrak eliz atean kantatzen. NEREA MAZKIARAN

MOTZEAN



Ihote ospakizunak gaur hasiko dira

Ohi denez, astearte inauteria baino 3aste lehenago inauteri giroa sumatzen da Etxarri Aranatz. Garizuma aurreko hiru ostegunetan ihote ospakizunak daude herrian. Gaurkoan, hasteko, Gizakunde ospatuko da. Heldu den ostegunean, ilbeltzak 31, Andrekunderen, emakumeak izanen dira protagonista. Hainbat familietakoak afaltzera bilduko dira. Ostegunetako ospakizunak otsailaren 7an bukatuko dira, Garikunderekin. Txatarak atera eta eskean

ibiliko dira aurreneko bietan, azkenean, berriz, zigorra eskuan ibiliko dute. Zalduniyoten, otsailaren 10ean, haurrak izanen dira protagonistak. Eta astearteyoten herriar gehienek egingen dute bat festa-ekin. Baita kintoek ere.

Altsasun inauteri prestakizunak



Gero eta gertuago daude ihote ospakizunak. Hori dela eta, Altsasuko Musika Eskolak zintzarri edo fara entseguak prestatu du. Momotxorren dantzan parte hartu nahi dutenei zuzenduta dago. Fara eta makila dutenak asteartean, 19:30ean,

musika eskolatik pasa daitezke.

Txerrikiari gorazarre



Larunbatean La Encina elkartean txerri hiltzearen eguna ospatuko dute. 9:30ean bildutakoek ogi apurrak gosalduta eta hilik ekarritako animalien gorpua zatikatuko dute eta txorizoak, odolkiak eta beste egingen dituzte. Haragi zati batzuk gordeko dituzte eta beste batzuk larunbatean bertan janen dituzte. Lanak despeditu ondoren, txitxirioak aza eta txerrikiz lagunduta. Etxean egingadako Extremadurako gozokekin gozatu dute ahoa.

» Lakuntza



Joxe Andueza eta Anastasio Lazkoz omendu zituzten Lakuntzako danborradan.

» Olatzagutia



Jendea San Sebastian ermitan.

maría eugenia
Arrainak
www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsaldez zabalik

Asteazkenetan eta ostiraletan deskontu bereziak produktu freskoetan

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

arregui
eraikuntzak

Eraikitako 265m²ko pabilioia + solairuartera eta 1700m²ko lur sail urbanizatu erabilgarria Olaztin

San Juan 52 behea • ALTSASU
T. 948 562 008 F. 948 468 463
www.construccionesarregui.com
admon@construccionesarregui.com

FRONTOIKO TABERNA

Ostiraletan pintxo potea

Plater konbinatuak
Bazkariak eta afariak enkarguz

948 469 138
ERKUDEN 4 • ALTSASU

2x1

TxiKiTxo
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialleku 2 • ALTSASU

» Olatzagutia



Goikoetxeatarren etxeko fatxada larunbat goizean. UTZITAKOIA

Alkatetzak goikoetxeatarren etxeko pintadak arbuiaitu ditu

Lourdes Goikoetxea lehendakari-ordearen familiak Olatzagutiko plazan duen etxean hainbat pintada agertu ziren larunbat goizean. Errausketaren kontra, begi puntu bat eta "Barcina, Goicoechea, Sánchez de Muniáin algún día os saldrá caro" idatziak egin zituzten. Fatxada, altura ezberdinetan pinturaz zikindu zuten. Azken horiek ez beste gainontzeko pintada guztiak familiak garbitu zituen larunbat goizean.

Olatzagutiko alkatetzak halakorik ez duela onartzen adierazi du.

Aldi berean, nabarmendu du herritarrengan haserrea sortu duela Udalez Gaiindiko Proiektu Sektoriala onartzeak, eta horrela porlandegian hondakinak erraus-tea inposatzeak. "Haserre hori bideratzeko beste erantzun mota batzuk daude: egin diren eta egin diren mobilizazioak".

Nafarroako Gobernuaren erabakiak Olatzagutian, Sakanan eta kaltetutako beste eskualdeetan sortu duen arbuioa estaltzeko gertakari horiek erabiltzea salatu du alkatetzak.

Erreakzio gehiago

Nafarroako Gobernuak eraso kondenatu egin du. "Kargu publikoek eta haien senideek behartze onartezina dira" pintadak. Aldi berean, "Sakana ekonomiko berriro aktibatze eta enplegua sortzeko konpromisoa berretsi du Nafarroako Gobernuak. *Parlamentuko bozeramaileen batzordeak* adierazpen instituzionala

onartu du, Bilduren abstentzioarekin eta gainontzeko taldeen aldeko botoekin. Gertaerak errefusatu eta onartezintzat jo ditu "behartze eta mehatxu saiakera". Lourdes Goikoetxeari eta haren familiari elkartasuna eta babes adierazi die ere. UPNk ere pintadak "gogor" kondenatu ditu. UPNren iritziz, "eraso honek ezker abertzaleko sektore askoren benetako jarrera erakusten du. +www.guaixe.net

SAKANA

"Ez dira gure gaineratik pasako"

Sakanako, Lautadako eta Lizarraldeko hautetsiek itxialdia egin zuten ostiralean Portlanden hondakinak erretzeko baimena onartu dutela salatuzko

500 bat pertsona elkarretaratzean bildu ziren

Nafarroako Gobernuak Olatzagutiko Portlanden birziklatu ezin diren hondakinak erretzeko baimena onartu zuen aurreko asteazkenean. Ostiralean Sakanako, Lizarraldeko eta Arabako Lautadako 32 hautetsiek Olatzagutiko udaletxean itxialdia egin zuten "udalen autonomiaren aurkako erabakia" salatuzko. Hortaz, Nafarroako Gobernuak udalez gaiindiko proiektu sektoriala (UGPS) "asmatu" duela kritikatu dute. Larunbatean 500 bat pertsona elkarretaratzea egin zuten.

Nafarroako Gobernuak gizarte gehiengoaren kontra jo duela salatu dute hautetsiek. Gainera, Sakanako, Lizarraldeko, Arabako Lautadako eta Goierriko udalen gaine-



Hautetsiekin batera makina bat sakandar bildu ziren. ERKUDEN RUIZ BARROSO

rik Portlanden hondakinak erretzeko erabakia hartu izana kritikatu dute ere: "udal autonomiaren aurka hartu dute erabakia, udal lege-dia bertan behera utziz". 1998an Portland enpresak herritarren osasuna bermatzeko araua onartu omen zuen, Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiarekin gutxiesten dena. Gobernuak eta "interes pribatuek" udalen gaineratik hondakinak erretzeko baimena inposatu nahi dutela salatu dute hautetsiek.

"Herritarren osasuna bermatzeko gure esku dagoen guztia egingo dugu", adierazi zuen Saioa Amezkua Aguraingo zinegotziak hautsien izenean: "arazoaren larritasuna dela eta gure erantzuna parekoa izango da". Hondakinak Portlanden erretzearen aurka dauden udalak eta herritarrek antolatuz Nafarroako Gobernuaren erabakiari buelta eman dakiokeela gaineratu zuen. Parlamentu-ra jotzeko asmoa azaldu dute.

Parlamentuan, porlandegiaren UGPS bertan behera uztea eskatzeko

Gobernuak udal autonomiari egindako eraso salatu zuten **Bilduk, NaBaik, I-Ek eta Geroa Baik** Asteartean Nafarroako Parlamentuan agerraldia egin zuten Unai Hualdek, Altsasuko zinegotziak, eta Gurutze Rodríguezek, Olatzagutiko alkateak, hainbat hautetsiekin bate-

ra. Biek eresalatu zuten gobernuak porlandegiaren onartutako Udalez Gaiindiko Proiektu Sektoriala (UGPS) "ez dagokiola interes orokoreko eta publikoaren defentsari, baizik eta enpresa pribatu baten interes ekonomikoaren babesari". Berretsi zuten erraustegia ez dela irtenbidea eta, gainera, "inposizio politika honi amaiera jarri behar diogula denon artean". Herrien eta eskualdeen etorkizunaren defentsan segituko dutela adierazi zuten. Antola-

tuko diren beste protesta ekimenean parte hartzera gonbidatu zuten. EAJK mozioa aurkeztu du Arabako Biltzar Nagusia. Nafarroako Gobernuak emandako baimenak indarrean dagoen legedia ez dutela betetzen dio. EAJK Nafarroako Gobernuaren "inposizioa eta jokatibidea" salatu nahi dute. Arabako erakundearen 2012ko ekainean mozioa onartu zuten, baimenak lege-ria errespetatu zezala eskatuz.

OSAGARRIETAN
%30 EKO
DESKONTUAK

Redén
Lurrindenda eta kosmetika

948 562 452 ALTSASU

NEREA
ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA.

Ermifeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaldea)
LAKUNTZA. TFN: 948 576 331

kaxeta
liburudenda / paperdenda

Zure bertako opari denda

Fax Zerbitzua
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

LARRAZA ARDOAK
Tel.: 948 460 014

Zugarreta 2
Etxarri-Aranatz

OLAZTI
HORTZ KLINIKA

A. GURMINDO STEIN KALEA 6
948 56 25 36 · OLAZTI

Igoa
arraiendegia

948 460 111 · Arkuetobide kalea · Etxarri Aranatz

BUJANDA
okindegia

Tel.: 948 467 503
Kale Nagusia 31, OLAZTI

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan orain!

Berria erosi taldea

MAITE
arrandegia
Arrain freskoak, egunero

Pasaiko amuko legatza

948 467 385 · 607 973458
La Paz 3 · ALTSASU

SAKANA

Haurrak hazi eta irabazi D ereduan

Sakanako Mankomunitateak seme-alabak D ereduan matrikulatzeko deia egin die gurasoei. D ereduaren alde egiteko Irrien Lagunekin jaialdia antolatatu dute otsailaren 16an

Sakanako Mank 2010 eta 2011n jaiotako haurren gurasoei zuzendu zaie, otsailaren 1etik 8ra ikastetxe-etan aurrematrikulatzeko epea iritsi baita. Mankomunitateak aipatu gurasoak euren seme-alabak D ereduan matrikula ditzaten animatu nahi dituzte "D ereduak bakkarririk bermatu baitezake euskara eta gaztelania erabat menperatzea".



Pailazo ezagunak dira matrikulazio kanpainako irudia.

<http://ttiki.com/46505>

D ereduaren alde Pirritx, Porrotx, Marimotots eta Irrien Lagunekin batera prestatutako bideoa ikusteko.

Aurten Nafarroako toki entitateek, tartean Mank-ek, D ereduaren aldeko kanpaina Pirritx, Porrotx, Marimotots eta Irrien Lagunekin batera egin dute "hazi eta irabazi D ereduan" lelopean. Bideo polita grabatu dute, interneten ikusgai dagoena.

Irrien Lagunekin jaialdia

Otsailaren 16an Irrien Lagunekin jaialdi bat antolatu dute Nafarroako toki entitateek Iruñeko Anaitasuna Pabilioian, goizez. Sakanan errolatuta dagoen eta 2010 edo 2011n jaiotako haur bakoitzari doaneko bi gonbidapen banatu zituzkie. Gonbidapenak eskuratzeko argibideak arestian aipatutako bideoan ematen dira. Bestalde, otsailaren 1etik 8ra sarrerak salgai egongo dira (5 euro) Sakanako Euskara Zerbitzuan. Jaialdiaren egunean bertan txarteldegian ere salgai jarriko dira sarrerak.

Sakandarrak Durangoko Berdeago azokan

Ekimenaren antolatzaileen artean Jon Etxeberria etxarriarra dago, eta parte hartuko duten 40 enpresen artean Lacunza Calor Group eta Naparpellet daude

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Fakultateko 6 ikaslek, tartean Jon Etxeberria etxarriarrak, Berdeago izeneko proiektua sortu dute. "Berdeago ingurugiro, iraunkortasun eta eraginkortasun energetikoaren inguruan, gizartea kontzientziatzeko eta arlo honetako produktu eta zerbitzuak azaltzeko dinamizazio egitasmoa da, azoka batez eta ekintza batzuez osatua". Hala definitzen dute egi-

tasmoa gazte horiek web gunean.

Urte eta erdiko lanaren ondoren, eta Durangoko Udalaren, Bizkaiko Aldundiaren eta beste hainbat entitateen laguntzarekin, ingurumen eta energia eraginkortasunaren inguruko Berdeago izeneko azoka antolatu dute. Gaur eta bihar egingen da, Durangoko Landako gunean. Ingurumena errespetatzen eta bulkatzen duten produktuak egonen dira ikusgai: auto eta bizikleta elektrikoak, galdarak, energia berriztagarria erabiltzen duten etxeak...



Azoka sustatu duten gazteak, eskuinean Etxeberria. WWW.BERDEAGO.COM

www.berdeago.com

Azokari eta proiektuari buruzko informazio guztia eta azokaren egitaraua.

Azokan parte hartuko duten 40 enpresa ingururen artean Lacunza Calor Group (biomasazko galdara beroa) eta Naparpellet izanen dira. "Horretaz gain, era ludiko batean ondo pasatu eta ikasteko aukera izanen da, adin ezberdinetara egokitutako ekintzak egongo baitira: zientziaren gunea, ludoteka, kafetegia, bizikleta edo auto hibrido/elektrikoaren probaketa..." dio Etxeberriak. Egitarau zabala osatu dute eta bertara hurbiltzera gonbidatu gaitu etxarriarrak.

MOTZEAN

Kultura ezberdineko emakumeendako deia

Sakanan bizi diren eta kultura ezberdina duten emakumeak biltzeko gonbitea da asteazkenerako egin dutena. Tarte goxo bat pasatzeko eta beste emakumeekin hitz egiteko aukera ematen duen topaketa da eskaintza. Sakanako Mankomunitateko Immi-

grazio Zerbitzuak, Altsasuko Emakumearen Bilguneak eta Burunda mendaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak luzatu dute gonbitea, Gure Etxean, 17:00etan, jarri dute hitzordua. Informazio gehiagorako hotsegin 648070710 edo immigrazio@sakana-mank.com postara idatzi.

Mank-ek ur zerbitzurako ofiziala

kontratatu du

Urte bateko kontratua egingen zaio, bi hilabeteko probaldiarekin, lanaldi osoan

Sakanako Mankomunitateko Ur Zerbitzuko goi eta behe hornidurako iturgintza lanak egingen ditu kontratatutako pertsonak. Horretaz gain, bestelako egitekoak izanen ditu: ponpaketetan eta araztegiatan Mank-en urrutiko kontrol sistemaren mantentze lanak; ur kalitatearen kontrola, bateriak; andelak; azpiegiturak; neur-

keta eta irakurketa ekipamenduk; konponketak, matxurak, kudeaketa sistemaren dokumentazioa eta beste. +www.guaixe.net

Azienden bazkarako herri-lurak eskatzeko epea zabalik Altsasun

Otsailaren 1ean despedituko da eskaerak aurkezteko aldia

Altsasuko Udalak jakinarazi duenez, azienden bazkarako herri-lurak eskatzeko interesa dutenek eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko garaia dute. Udalak adierazi duenez, bazkarako herri-lurak gizarte irizpideen arabera emanen dira. Hau da, ekonomikoki xumeago diren familia unitateei emanen zaizkie, baita abeltzaintza jarduera nagusi dutenei ere. Eskaerak baloratu ondoren, eskatzaile guztiak bilera publikora deituko ditu udalak. +www.guaixe.net

Bazkide zozketa



ILBELTZeko SARIA:
3 LIBURUREKIN OSATUTAKO 4 LOTE



Non erabili Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

MARIA LUISA

ALTSASU

100€-tik gorako erosketetan, 10€-ko deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

30€-tik gora, maskarilarekin larruzaleko masajea. 50€-tik gora, anpoila hidratatzaile bat.

MENDILORE

BAKAIKU

30€-ko erosketarengatik,

landarea doan, %5-ko deskontua lorontzietan.

MARTXUETA

IRURTZUN

%5eko irakurketako liburuetan.

LEKU ONA OSTATUA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doan. Bestelako menuetan, %10eko deskontua.

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

ALTSASU

50 euroko erosketa bategatik Julene dendan erabiltzeko %10 deskontu balea.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI

%5a depilazioetan.

BAR AMAYA

IRURTZUN

Menuarekin kopa doan.

SAKANA

2012ak 201 langabe gehiago utzi ditu

Duela urte bat baino 127 gizonezko eta 74 emakumezko gehiago daude langabezian



Lorezaintza lanak egiten. ARTXIBOA

Azarotik abendura 29 langabe gehiagok eman dute izena Nafarroako Enplegu Zerbitzuan. Hala, urtea 1.864 langaberekin despeditu dugu. Haietatik 940 gizonezkoak dira (%50,43) eta 924 emakumezkoak (%49,57). Agorrietik etengabe igo da langabezia Sakanan. Adinari dagokionez, langabe gehienek 25 eta 44 urte artean dituzte, 906 (%48,61). 45 urte baino gehiago dituzten langabe sakan-darrak 752 dira (%40,34). Lan eske-

dauden 25 urtetik beherakoak, azkenik, 206 dira (%11,05).

Sektoreei erreparatuta langabeen erdiak zerbitzuetan lan egin nahiko luke (934). Eskaera gehien dituen bigarren sektorea indus-

tria da, 646 (%34,66). Atzetik datoz eraikuntza (%7,73, 144) eta abeltzaintza (%1,82, 34). Bestalde, aurretik lanik egin ez eta lan bila dabiltzanak 106 sakandar dira (%5,69).

Langabezia udalerrika			
Udalerrria	Guztira	2012-11 aldea	2011-12 aldea
Altsasu	897	28	72
Arakil	74	-13	20
Arbizu	72	-3	12
Arruazu	4	1	-3
Bakaiku	19	2	3
Ergoiena	10	2	2
Etxarri Aranatz	200	-5	13
Irañeta	9	1	4
Irurtzun	192	-6	30
Iturmendi	19	2	4
Lakuntza	104	8	24
Olatzagutia	134	10	1
Uharteko Arakil	69	1	19
Urdaian	33	0	-4
Ziordia	28	1	4
Guztira	1.864	29	201
Langabeziaren garapena			
Urtea/hilabetea	Guztira	Gizonezko	Emakumezko
2008/06	599	235	364
2008/12	879	395	484
2009/06	1.230	619	611
2009/12	1.342	630	712
2010/06	1.438	666	772
2010/12	1.500	672	828
2011/06	1.505	698	807
2011/12	1.663	813	850
2012/06	1.661	794	867
2012/12	1.864	940	924



Ur sarean behin behineko konponketa egingen dute heldu den astean. ARTXIBOA

Ur sareko matxurari behin behineko konponbidea heldu den astean

Urdalurtik hornitzen diren herrietako ura edangarria da, Olatzagutian eta Ziordian ezik

Urdalurko uharkatik heldu den ur sarea Altzania ibaiaren azpitik pasatzen den tokian dago matxuratuta. Junta hautsi zen hilaren 15ean eta ur horniketaren arazoak sortu zituen. Matxura konpontzeko ibaiaren ur emari maila jaitsi arte ezin izanen da konponketa lanik egin.

Matxuraren konponketa

Bitartean Sakanako Mankomunitatea "teknikoki azkar egin eta segurua izan daitekeen behin behineko konponbidea" aztertzen ari da: zati horretan lurpetik joan beharrean sarea zubi baten ginetik eramatea. Behin betiko konponbidea lurpeko sarea konpontzea litzateke, baina aurreko aukera ere ez dute Mank-en baztertu. Egin beharreko lan guztien gastuak bere gain hartu beharko ditu Mank-ek.

Urdalurko ur ekarrian matxura izan zen egunean sareko ura klororik gabe gelditu zen eta herrietako iturburuetatik jaso zen. Horregatik, kutsadura mikrobiologiko puntuala gertatu zen.

Edangarria

Asteazken iluntzetik berriro ere Lakuntza, Arbizu, Urdaian eta Altsasuko etxeetako iturriko ura edangarria da. Astelehenean jarri zen indarrean debekua. Osasun Publikorako Nafarroako Institutuan ostegunean hartutako ur laginen analisiak kutsadura mikrobiologikoa zegoela erakutsi zuten. Ostiraleko analisisiek emaitza normalak eman bazituzten ere, Institutuak badaezpadako neurriak hartzea gomendatu zion Sakanako Mankomunitateari. Horregatik, debekua.

Asteartean errepikatuzituzten analisiak eta asteazken arratsaldean jaso zituzten Mank-en emaitzak, kutsadura mikrobiologikoa ez zegoela ziotenak. Beraz, etxeetako iturriko ura edateko debekua kendu zuten kaltetutako herrietan, Olatzagutia eta Ziordia, ezik. Herri horietako analisisetan kutsadura uhertasun arazoak atzeman baitira eta ez daude legezko parametrotan. Debekuarekin jendeak botiletako ura erosi edo beste herrietako iturrietatik hartu du. Matxura izan denetik, ur laginen azterketak eguneroko egin ditu Mank-ek.

Eskola euskalduna eta publikoa

SAN DONATO

IKASTETXE PUBLIKOA www.etxarrikoeskola.com

Aurrematrikula epea: otsailaren 1etik 8ra

Utzubar txiki z/g 31820 ETXARRI ARANATZ
T. 948 567 003 cpetxarr@educacion.navarra.es

» Altsasu

Enpresa "etorkizun zalantzarrian" dago, langileen esanetan

Nafarroako Gobernuari Sunsundegui enpresarekin egindako akordioa ez betetzea leporatu dio langileen batzordeak (UGTk 5, ELAk 4, LAB 3 eta independente 1). Enpresak produktua eta merkatua duela azaldu dute langileek, baina Sodenaren kudeaketa ez dela egokia izan kritikatu dute. Hortaz, azalpenik eman gabe enpresa aurre-konkurtsioan jarri dutela salatu dute. Sakanaren desindustrializazioa eta langabeziaren gorakadaren aurrean Gobernuaren erantzukizuna eskatu dute. Mila pertsonen Susundegui langileei laguntza eskaini zieten aurreko ostiralean Altsasun egindako manifestazioan.

Egonezina

Langileen artean "zalantza" eta "egonezina" nabarmentzen da.

Mila pertsonen Susundegui langileei elkartasuna adierazi diete



Manifestariak Nafarroako Gobernuari lantegiarekin eta ibarrarekin konpromisoa eskatu zioten. ERKUDEN RUIZ BARROSO

Sodenaren kudeaketa kritikatu dute, izan ere, "nafarren diruare-

kin ordaintzen ari gara proiektu hau". Hortaz, Nafarroako Gober-

nuari dagokio enpresa aurrera ateratzea, langileen esanetan. Due-

la hiru urte enpresak eta Sodenak hartutako erabakia betetzea eskatzen du langile batzordeak: "sozio industrial bilatuko zutela esan zuten, baina ez dute lortu", zioen ELAko ordezkariak. Inbertsio txarrak egin ondoren, enpresak duen zorra "publikoa" bihurtzeko arriskuan dagoela azaldu du langileen batzordeak.

"Langileok gure izerdi eta esku-bideekin ordaintzen ari gara Sodenaren kudeaketa ez egokia", zioen LABeko ordezkariak. Susundeguiaren lanpostuak mantentzeko eta Sakanaren desindustrializazioarekin bukatzeko borrokan jarraituko dutela adierazi zuten langileek. "Nafarroako Gobernuak ezin du beste leku batera begiratu". Egonezinarekin amaitzeko konponbidea eskatu zuten; horretarako, langileek eta enpresak behar dituzten konpromiso eta akordioak bilatzeko eskatu zuten.

SAKANA

Hobien Mapan 10 toki markatuta

www.fosas.navarra.es guneanegin daiteke kontsulta

1936ko estatu kolpearen aldekoek hil zituzten pertsonak non hobiratu zituzten azaltzen duen mapa bat egin du Nafarroako Gobernuak. Hobien Mapan 1.257 pertsona hobiratu zituzten tokiak eta 118 hobi komunentzako kokatu dituzte. Nafarroako Gobernuak mapa egiteko lana despedituztat eman du, nahiz eta hobi batzuetan zenbat pertsona dauden jakin ez. Oposizioko alderdiek, berriz, lanarekin jarraitzeko eta datuak osatzeko eskatu diote gobernuari.

Sakana

Mapan aipatzen diren ibarreko 10 hobietako bakarra ikertu dute. Altsasundago, N-1 errepidearen 401 km-an (egungo NA-1000), Gipuzkoako mugatik gertu. Arantzadi zientzia elkarteko kideek georadarra erabiliz errepide azpian hobia egon zitekeen aztertu zuten. Hobiaren sakontasunak eta errepidea egoteak zaildu egiten du gorpuzkinak berreskuratzea.



Urbasako sarioan Amekoako UGTko 3 kideren erailketa oroitarria. WWW.FOSAS.NAVARRA.ES

Ikertu gabeko hobien artean Urbasakolau sima daude. Ezaguna Otsoportillokoa da. Maparen arabera 16 gizon erail zituzten han: *Francisco San Roman Galbete (Altsasu-Urdiain), Narciso Artola Razkin (Etxarri-Aranatz, UGT), Sabino Lizarraga (Donostia-Arakil, PNV), Victor Urkijo Tobalina (Altsasu-Arakil, PSOE), Julian Ortiz de Lazcano Gonzalez (Contrasta), Jose Ubeda Sanchez (Altsasu-Arakil, UGT), Bernardo Domingo (Zalduondo), Joaquín Lizarraga*

(Donostia-Arakil, PNV), Antonio Maiza Miranda (Etxarri-Aranatz, UGT), Mauricio Rodriguez (Gordoa), Paulo Garzandia Arin (Etxarri-Aranatz), Emilio Garcia Izquierdo (Arakil, ezkerria), Andres Gonzalez (Calahorra-Etxarri-Aranatz, UGT), Miguel Gil (Galarreta), Adelino Gil Gonzalez (Arakil, CNT), Clemente Araña Miguel de Etxarri (Etxarri-Aranatz, UGT).

Ordotzko siman (Bioitza kanpinetik gertu), zenbat pertsona eta nola hil zituzten ez dela ezagu-

zen azaltzen da Hobien Mapan. Gauza bera gertatzen da Basauntziturri simarekin. Hara ere errepublikaren aldekoen gorpuak bota ziren, baina zein ziren ez da ezagutzen. Azkenik, Urbasako sario-ko edo rasoko siman (NA-718, 23 eta 24 km-en artean) Amekoako UGTko 3 kideren gorpuak daude.

Beste tokiak izendapena eman diote hobia non egon daitekeen datu zehatzik ez dagoen kasuei.

Sakanan halako bost izendatu dituzte. Haietako bat Oskiaiko arrate ondoan zegoen txipudia da. Han hainbat pertsona fusilatu zituztela aipatzen da mapan eta 6 sakandarraren izenak ematen ditu: *Manuel Elizalde Lecea (Arakil, CNT/SU idazkaria), Félix Zumarraga Urriza (Bakaiku), Pedro Ihabar Arbizu (Lakuntza-Arbizu, PNV), Ricardo Olejua Irurtzun (Lakuntza-Arbizu, PNV), Lazaro Alegria Lazkarai (Lakuntza, CNTko burua) eta Juan Jose Lakuntza Unzilla (Lakuntza-Arbizu, PNV).* Arakilgo azken despopulatua izan zen Murginduetan Beteluko postari Carmelo Arin Laskarai erail zuten.

Etxarri Aranatzaren halako bi toki izendatzen dira. Bata kanpo santua da. Han hil zuten Migel Flores Estanca. Lakuntzarrak sortzez, Arbizun bizi zen. Treneko enkarगतua zen eta EAJ-PNVko kidea. Beste tokiak Aritzalkoko ariztia da. Han hainbat pertsona erail zituztenaren erreferentzia besterik ez du ematen mapak. Aipamen horren barruan jasotako azken tokiak Ubaba da (Balcón de Pilatos). Faustino Rubio Bujanda gazteria sozialistako kide olaztiarra han erail zutela ziurtatzen du mapak. Baita besteren batzuk ere, baina ez du datu gehiagorik ematen.



CITROËN C-ELYSÉE BERRIA.
4.000.000 KM-TAN TESTATUTA

CITROËN C-ELYSÉE VTI EXCLUSIVE 10.500€*-TAN
EKIPAMENDU GUZTI HONEKIN:

- Eskuzko klimatizagailu
- Connecting Box (Bluetootha, audio sarrera eta USBa)
- ABS, ESP, larrialdietarako frenatzeko laguntza
- Abiadura mugatzaile eta erregulatzaileak
- 16"-ko aluminiozko lllantak
- Gidari eta bidaiari airbagak, aurrekaldeko albo-airbagak
- Atzealdeko geratze laguntza
- Lagunduriko norabide elektronikoa

ETA GAINERA 506 LITROKO MALETATEGIA.

KONTSUMO MISTOA (L/100 KM) / CO₂ IGORPENA (G/KM): CITROËN C-ELYSÉE: 4,1-6,5 / 108-151

*PSP gomendatua Citroën C-Elysée VTI 72 Exclusive (zergak, garraioa, eskaintza eta PIVE plana barne), Plan PIVEa heltzen duten bezero partikularrendako, jabetzan duten Citroën autoa entregatu duten erosleendako. Banque PSA Finance Sucursal en España en (Erregistro zenbakia www.orias.fr webgunean ikusgai) bitartez, gutxieneko 36 hilabeteko iraunkortasunaz, 6.000€ko gutxieneko kapitala finantziatu eta AXA Seguros Generales S.A. y de Seguros y Reasegurosekin seguru kontratatzen duten erosleentzat. Eskaintza hila arte bukaera arte eta partaide diren saltokietan. Eskaintza ez metagarria. Kontsultatu baldintzak www.citroen.es-en.





GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



Joxe Mari Martinez de Esteban

Urtero elkartzeko gara
eta zu gurekin egoten zara,
inoiz ez zaitugu ahaztu.

1972ko urtean jaiotako kintoak



Jesus Mari Jaka Maiza

Aurten ez dezu
okupetu biher
betiko sille,
beye gu tartien
yonko za beti.

Zure 1969ko kintuek



**Hainbat
aukera**

Galdetu

948 564 275

Otsailak 2 eta 9. Xabier Amurizaren eskutik, Iruñean. Bereziki zuzendua euskara eguneroko lanabes gisa dugunoi. Informazio gehiago: info@hedabe.info, 948- 14 47 06.

Odol emaileen autohemoteka Irurtzenen. Otsailaren 5ean, Irurtzenen, arratsaldean.

Lakuntzako Parkea Martxan saskien zozketako zerbaki sarituak. 1. saskia: 01312 (Eva Cerviñok saldua); 2. saskia: 08779 (Cristina Razkinek saldua); 3. saskia: 04131 (Mari Jose Arregik saldua); eta 4. saskia: 05770 (Oihana Aldabek saldua). Eskerrik asko Lakuntzako komertzio, taberna eta denda guztiei eta parte hartu duzuen guztioi.

Saskiaren saritua. San Donato eskolako Guraso Elkarrekin antolatutako goizeko gelarako saskiaren saritua 147 zenbakia izan da eta saritua Sara Beloki.

3 Mugak Baterak kontu korrantea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Pikuxar Mus Txapelketa azkarra. Hilabetearen azken ostiralean. Gaueko 22:00etan. Apuntatu ordu bat lehenago. Partidak 2 txikotara, eliminatoria. www.blogak.com/irurtzuneuskaraz/pikumus-txapelketa-azkarak. 5 € bikoteko. Saria bi gazta.

Zientzia eta teknologiaren XI. Elhuyar Olinpiada. DBHko 1. eta 2. mailetakoko ikasleei zuzenduta dago. Izena emateko epea zabalik dago. Informazio gehiago Nagore NARBARTe, Marketing saila, 943- 36 30 40 telefonoan, n.narbarte@elhuyar.com eta www.elhuyar.com helbideetan.

Oinez - San Fermin ikastola. San Fermin ikastolak dei egin nahi die etortzerik izan ez duten euskaltzale guztiei euren laguntza emateko www.nafarroaonez.net, Laboral: 30350145661450044110, Rural: 30080077140703177022, CAN: 20540082109123939260, Kutxa: 21010970010012925384.

Zientzia eta teknologiaren dibulgaziorako 2012ko CAF-Elhuyar sariak. Aurtengo edizioan kategoria berria izango du sariak: Zientzia gizarrean sorkuntza-beka. Lanak aurkezteko epea 2013ko urtarrilaren 31ra arte dago zabalik. Informazio gehiago: cafelhuyarsariak.elhuyar.org.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoe-tara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosefinaarreguilagunak@gmail.com.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

http://www.foremnararra.org/cursos/autonomi-co.php.

Lehiaketak

VII. Mikro-ipuinen lehiaketa. Pamiela argitateak eta Euskara Kultur Elkargoak antolatutako. Nafarroa osoan D eta A eduetako maila guztietan ikasten duten ikasleei zuzenduta. Idazlanak onartzeko epea 2013ko urtarrilaren 31n amaituko da. Informazio gehiago: www.euskarakultur.org/eus/arauak-2012.

Palindromo lehiaketa deitu du AEDK. Palindromo: aurretik atzera naiz atzetik aurrera, berdin irakurtzen den hitza edo esaldia. Epea: otsailaren 15a. Informazio gehiago www.aedl-karteak.com.

5. Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa. Lanak bidaltzeko epea apirilaren 19 arte izango da. Informazio gehiago: www.elkar.com/lehiaketa.

Oharrak

Larru banaketa Olaztin. Olaztiko Udalak inauterietarako larruak banatuko ditu hilaren 29an, asteartean. Udaletxetik pasa 10:00etatik 14:00etara. Fidantza: 20 €.

Hezkuntza alternatiboari buruzko jardunaldiak. Sakanako Asanblada Libertarioak antolatu ditu otsailaren 2 eta 3rako. 3ko bazkarian izena eman nahi duenak ilbeltzaren 31ra arte egin dezake babarrunbeltzak@gmail.com e-postan.

Ihardunaldiak. Zazpi ebidentzia birjaiotzarako.

JAIOTZAK

- **Aiora Lili Petrea Garcia,** ilbeltzaren 7an Altsasun.
- **Sohaib El Ibrissi,** ilbeltzaren 11n Altsasun.
- **Aiora Baleztena Santesteban,** ilbeltzaren 13an Lakuntzan.
- **Eki Trevejo Carrera,** ilbeltzaren 14an Etxarri Aranatzan.
- **Iria Cancho Pardo,** ilbeltzaren 14an Altsasun.
- **Itsaso Etxeberria Claver,** ilbeltzaren 17an Altsasun.
- **Iñigo Galarza Stoyanov,** ilbeltzaren 17an Altsasun.

HERIOTZAK

- **Saturnino Sarasa Aldaba,** ilbeltzaren 15ean Hiriberrin.
- **Jesusa Aseginolaza Asurmendi,** ilbeltzaren 17an Iturmendin.
- **Nati Iroz Lopetegi,** ilbeltzaren 22an Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Eskuratu zure Beilexeguaix txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Etxeko ogirik nahi? Sukaldea margotuko al didazu? Trukatu zure denbora. Ordu bat-ordu bat. Eska ezazu informazioa Larrezabal denboraren kutxan, larrezabal@inigoarizta.com posta elektronikoa.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zuten ondare publikoen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburu argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarrekin eta denda. Sakanako produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarri edo hornitzaile desberdinei eskatu. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakkarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garagardoa, leakeak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Izan zaituz Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, asteen behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakanamintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

Ibilgailuak

AUTOAK

SALDU

Peugeot 807 Premium kotxea saltzen da. la berria, 7 eserleku, 2011ko azarokoa, 17.000 km. Telefonoa: 649- 83 22 36, Jose Ignacio Flores.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Etxea salgai lhabarren. Telefonoa: 678- 23 40 91.

Pisua salgai Altsasun. 2. eskuko eta ia-ia erabili gabe. Altzariak jarrita. Prezio ona. Telefonoa: 618- 19 07 24.

Galdutakoak/opatutakoak

GALDUTAKOAK

Mugikor bat Altsasun galdu zen. Urtarrilaren 6an. Opatu duenak, mesedez, hots egin dezala 617- 61 60 85 telefonoa.

Ikastaroak

AESek ikastaro hauek antolatu ditu. "Lan erreforma eta bere inplikazioak enpresan" urtarrilatik 31tik otsailaren 14ra; "Finantza finantzerio ez direnendako: analisi ekonomiko erretrak", otsailaren 11etatik 26 arte, 25 ordu; "Komunikazio eraginkorra bezeroarekin" martxoaren 11tik 21era, 20 ordu; "Logistika eta stocks: kudeaketa" otsailaren 15etik martxoaren 15era, 20 ordu; "Sare sozialak enpre-

san eta on line erreputazioa", otsailaren 19tik martxoaren 21era, 30 ordu. "Arazo konponbideak eta Windows 7ren optimizazioa", otsailaren 4tik martxoaren 6ra, 30 ordu.

Harria lantzeko tailerra Etxarri Aranatzan. Urtarrilak 26 eta otsailak 4 (luzatu daiteke). Dohainik. Izena emateko kultura@etxarriaranatz.com, 948- 46 09 30 eta udal bulegoan.

Jaiotzak egiteko ikastaroa. Sakanako belenzaleen elkarrekin antolatu du martxoak. 40 ordu, ostiralean 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara, elkarrekin Olaztiko egoitza. Izena emateko hots egin: 606- 22 76 12, 616- 34 75 11 edo 948- 56 31 94.

Belenzaleen zozketako saria. 283 zenbakia izan da saritua eta haren jabeak jaiotza eskuratu du. Hots egin 606- 22 76 12 telefonora.

UGTk ikastaro hauek antolatuko ditu. "Soldadura" urtarrilaren 28tik martxoaren 6ra; "Eskorga jasotzailea gidatzeko" otsailaren 16tik apirilaren 16ra; "Planoen interpretazioa" martxoaren 4tik 21ra; "Testu-tratamendua" martxoaren 9tik apirilaren 20ra; "Lehengaien manipulazioa" apirilaren 2tik 29ra; "Eskorga jasotzailea gidatzeko" apirilaren 6tik maiatzaren 4ra; "Soldadura TIG" maiatzaren 4tik 25ra (Iruñean); "Elektrezitate 1" apirilaren 8tik maiatzaren 20ra; "Excel aurreratua" maiatzaren 6tik 23ra.

FOREM Navarrak eta CCOOek antolatutako ikastaroak. Informazio gehiago: 948- 13 66 88 eta

Pilota

Zubieta eta Gonzalez puntu faltan
eta Irujo eta Zabaleta 5. puntuaren bilaAsteburuan 6.
jardunaldia jokoaIrujo-Zabaleta / Arretxe II.a-Begino
(larunbatean, 17:00etan, Iru-
ñeko Labriten)Olaizola II.a-Zabala / Gonzalez-
Zubieta (igandean, 17:00etan,
Eibarren. ETB1)Txapelketako
puntuazioa

Txapelketako 5 jardunaldi jokatuta, Bengoetxea-Beroizek 5 puntu dituzte, Irujo-Zabaletak 4, Xalabarriolak eta Titin-Merinek 3, Olaizola-Zabalak 2, eta Gonzalez-Zubietak, Berasaluze-Albisuketa Arrege II.a-Beginok 1.

Binakako Pilota Txapelketako 5. jardunaldia gazi-goza izan da sakan-darrendako. Berasaluze VIII.ak eta Albisuk euren lehendabiziko puntua lortu zuten Gonzalez eta Aitor Zubietari 22-16 irabazi ondoren. Aipatzekoa da Gonzalezek gorputzaldi txarra izan zuela eta nahiz eta Zubieta ongi aritu, horrek eragin handia izan zuela. Bestetik, Jose Javier Zabaletak eta Juan Martinez de Irujok 16-22 irabazi zieten Aimar Olaizolari eta Ibai Zabalari. Olaizola ekiditeko Zabala kargatuz eta indarrean oinarrituz gero garaipena Irujok eta Zabaletak.

Zabaleta pozik

Asteazkenean pilota aukeraketa egin zuten, Labriten, Zabaleta-Irujok eta Iker Arretxe-Beginok. "Gure pilotak bote erdikoak dira eta euren bi pilotek, aldiz, bote gehiago dute" adierazi du Jose Javier Zabaletak. Arerioei buruz etxarrendarrak nabarmendu du "oso fin ari direla" eta Beginori "errespetu handia diola, atzelari oso indartsua" delako.

Binakakoan gustura dabil Zaba-



Olaizolari eta Zabalari 16-22 irabazi zieten Irujok eta Zabaletak. UTZITAKOIA



Gonzalez eta Zubieta irabazi beharrean daude. UTZITAKOIA

leta. "Ongi hasi ginen, gero bi partida okerragoak izan genituen... baina 5 jardunaldietatik 4 irabazi ditugu eta pozik gaude" aipatu dio Guaixeri. Komunikabideetan sarritan aipatzen da Zabaleta Binakako sentsazioetako bat izaten ari dela. Olaizola berak ere hori nabarmendu zuen. "Beno, halako gauzak entzun, entzuten dituzu, baina nik nire egunerokoarekin jarraitzen dut" dio, beti bezain umil, Etxarrendoak. Irujorekin aritzeagatik ikaragarri pozik dago. "Udan partida batzuk jokatu genituen baina gero txapelketan has-tea kosta egiten da. Dena den, par-

tidaz partida hobeto gaude" nabarmentzen du. Irujo urduria denez, eta bera lasaia, lasaitasun horrek Iberokoari mesede egingo diola aipatu diogu. "Beno... baietz uste dut, Irujo partidaz partida gero eta hobe eta serioago ari baita" dio.

Arerio guztiak gogorrek direla nabarmentzen du Zabaletak. "Liga bukatzeko 9 jardunaldi galditzen zaizkigu. Egun puntu bat dutenek pare bat partida irabazita goian sar daitezke. Partida guztiak nibelatuak izaten ari dira, tanto gutxiren aldearekin". Begino oso ongi ikusi du "motibatuta, pilota sekulako indarrarekin joz" esan

zigun. Berak ere pilota sekulako indarrarekin astintzen duela erantzun genionean, "beno, saiatzen gara..." esan zigun. Umila bezain handia eta jatorra.

Zubieta sentsazio kontrajarririkin

Txapelketan sentsazio kontrajarririkin ditu Aitor Zubietak. "Entrenatzen sekula ez bezala nago, preparazio onean, bikain, eskuetatik eta gorputzetik gustura, konfiantza, oso pozik, benetan... pertsonalki inoiz bezala nago. Baina gero, txapelketan ez dugu 22ra iristea lortzen. Sentsazio kontrajarririkin ditut" azaldu digu etxarrendarrak. Zortea ez dute alde izan Zubietak eta Gonzalezek. "Sebastienek gorputzera txarra izan zuen azken partidaren, ez dago bere onenean. Konfiantza puntu bat behar du, eta ea Olaizolaren eta Zabalaren kontrako partidaren hori lortzen dugun. Gogor entrenatzen ari gara eta ea lortzen dugun" gaineratu du atzelariak.

Partida konplikatu aurreikusiten da, Zubietak eta Gonzalezek puntu bat eta Olaizolak eta Zabalak bi puntu dituztelako. Puntu beharrean daude bi bikoak, estu. "Asko geratzen da eta txapelketa oso estua dago, nibelatuta. Edozeinek irabazi dezake eta oso alde gutxi dago, baina dagoeneko biko te batzuk puntuak lortu dituzte eta guri emaitzak ez digute laguntzen. Puntuak lortu behar diren estuasun hori nabaritzen dugu eta horrek moralean eragina du. Puntuatu beharra dugu" nabarmendu du Zubietak. Beti bezala, onena ematera aterako dira eta ea euren 2. puntua lortzen duten. "Kantxara ateratzen zarenean eguneko partida horretara zoaz. Denak topera ateratzen gara eta estuasuna berbera da guztiendako. Lan asko egin beharko dugu eta ea Sebasek konfiantza berreskuratzen duen" adierazi digu.

Pilota



Ezkurdia bajaran

Joseba Ezkurdia pilotariak mina hartu zuen igandean Eibarko Astelenan. Laskurainekin biko osatuta Jaunarena eta Pascualen kontrabikain jokatzen ari zenean -partidako onenaz-, frontoiko ezker paretaren kontra kolpe handia hartu zuen eta ondorioz Arbizuko aurrelariak luxazioa dauka ezkerreko sorbaldean. Gutxi gorabehera hiruzpalau aste egonen da frontoietatik kanpo. Pena handia izan da, Ezkurdia Binakako Txapelketako ordezkotako bat izateko aukerak zituelako.

Marco Realeko 1.100 ardo botilak jaso zituen Aspek

Aspeko pilotari eta teknikariek ardo desafioan irabazitako 1.800 ardo botilak jaso zituzten Marco Real upategietan. Retegi Bik, Aitor Zubietak, Idoatek eta Jaunarenak Bilboko ferriako 600 botilak jaso zituzten, eta Gorkak, Irujok, Zabaletak eta Ezkurdia Errioxako ferriako 1.200 botilak.

Trinketea

Nafarroako Txapelketako 2. jardunaldian sakandarrek irabazi

Nafarroako Trinkete Txapelketako 2. jardunaldia jokatu da. Eskuz Binakakoan Aldabideko Murgiondok eta Mundiñanok 40-18 hartu zituzten menpean Paz Zigandako Berrogi eta Sanchez. Emakumeen paleta goman Aristorenak eta Zamorak 40-16 irabazi zieten Etxarri-Urtasuni.

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

MAPFRE ALTSASU

TRAKTORE ASEGURUA
+ ERREMOLKEAREN ASEGURUA DOAN

HERIOTZA ASEGURUTAN
% 15 EKO DESKONTUA

J.A. Imaz Prim
Tel: 948 563 354 • Faxa: 948 562 151
San Juan, 48 • ALTSASU • jimazpr@mapfre.com

IHESLARIAK ETXERRA

BILTOKI
taberna

tel. 948 467 876 Altsasu

Futbola	
3. MAILA	
21. JARDUNALDIA	
LAGUN ARTEA 0 - SAN JUAN 0	
Lagun Arteak ongi jokatu zuen, balaia dominatu eta gol aukera politak sortuz, baina jokaldiak borobiltzen ez zuen jakin. Irabaztea merezi izan zuen, pena berdintzea.	
Sailkapena >>	
1. Mutilbera	47 p
12. Lagun Artea	28 p
Asteburuko jardunaldia	
SUBIZA - LAGUN ARTEA	
(Larunbatean, 15:30ean, Subizan)	
ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa	
16. JARDUNALDIA	
AMIGÓ 3 - ETXARRI ARANATZ 1	
ALTSASUK atsedean jardunaldia zuen. Amigók hasieratik bukaerara dominatu zuen partida. 80. minutuan 2-1 gerturatu zen Etxarri, baina Amigók asmo guztiak zapuztu zituen 3. gola sartzean.	
Sailkapena >>	
1. San Juan	43 p
10. Etxarri Aranatz	15 p
11. Altsasu	14 p
Asteburuko jardunaldia	
ETXARRI ARANATZ - ALTSASU	
(larunbatean, 15:30ean, Etxarri Aranatzen)	
ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA	
13. JARDUNALDIA	
BIDEZARRA 1 - ZALDUA 1	
EGIARRETA 0 - SANTA KRUZ 2	
Sailkapena >>	
1. Unziti	19 p
5. Zaldua	15 p
8. Egiarreta	11 p
Asteburuko jardunaldia	
ZALDUA - ERROT SE. EZ	
(Igandean, 12:00etan, Lekunberrin)	
EGIARRETA - ERROT SE. EZ	
(Larunbatean, 15:45ean, Uharteko Arakilen).	

Areto futbola	
SAKANAKO TXAP. - IKER KIROLAK	
Sakanako 22. Areto Futbol Txapelketa-Iker Kirolakeko 10. jardunaldia jokatu da bihar.	
10. jardunaldia (bihar, larunbatean, Altsasun)	
AREZPE - PIPEROXKI	
PATINTER - ASS APPLE	
AUZOMOTOJORIK - BILTOKI	
EMAKUMEEN SENIOR MAILA	
11. JARDUNALDIA	
ALDABIDE 1 - IDOIA 1	
Lidergoa eskuratu dute Arbizuko neskek, baina Gima Ribera puntu eskas batera dute.	
Sailkapena >>	
1. Arbizuko Aldabide	28 p
Asteburuko jardunaldia	
AGOITZ - ALDABIDE	
(Larunbatean, 11:00etan, Agoitzen)	



Usinek 2 gol sartu zizkion Marfili.

Bartzelona liderra hartuko du gaur Trimaneke

Asteburuan Marfil Santa Colomaren kontra partida polita jokatu eta 3-5 irabazi eta gero, gaur, hilak 25, ostirala, Bartzelona lider sendoa hartuko du Triman Navarar Xotak Anaitasuna pabilioian (20:30). Irurtzungo taldea 5.a da sailkapenean eta gogo handiz hartuko du liderra. Partida zaila, borrokatua eta ikusgarria aurreikusten da.

Espainiako Kopan Trimaneke El Pozo aurkari

Otsailaren 21etik 24ra jokatu da Espainiako Areto Futboleko Kopa, Alcalá de Henaresen. Sailkapenean lehen 8 postuetan dauden taldeek jokatu dute Espainiako Kopa, tartean Triman Navarra Xota, Irurtzungo taldea 5.a baita txapelketa. Trimanekekin batera Bartzelona, El Pozo Murcia, Inter Movistar, Santiago Futsal, Caja Segovia, Rios Renovables eta Umacon Zaragoza ariko dira Kopan, bi multzotan banatuta. Astelehenean egin zen zozketa eta Triman Navararak El Pozo Murcia izango du aurkari, otsailaren 22an, 19:00etan, final laurdenetan. Irabazleak Inter Movistar eta Caja Segoviaren lehiako garailea izango du aurkari finalerdian. Beste final laurdenetan Rios Renovables Santiago izanen du aurkari eta Umacon Zaragozak Bartzelona.

www.infs.es

Dagoeneko ligako web gunean eros daitezke Espainiako Kopako sarrerak.

Atletismoa Alberto Martinez 16.a Araitz-Betelun

Sakandarrak VIII. Araitz-Beteluko Krosean

1. Mouhessin Charkaoui	25:26
16. Alberto Martinez	28:29
25. Fco. Javier Gomez	29:17
27. Juan Carlos Gomez	29:30
59. Iban Gonzalez	32:03
60. Tomas Guirado	32:03
82. Santi Agirre	33:37
90. Borja Gonzalez	34:05
120. Ismael Lopez de Goikoetxea	36:29
162. Javier Ramirez de Alda	43:07



Alberto Martinez, erdian, Sakanako Herri Lasterketan aritu zenean.

Igandean VIII. Araitz Betelu Krosa jokatu zen (8 km). 175 korrikalarik hartu zuten parte eta azka-

rena Mouhessin Charkaoui izan zen (25:26). Sakandarrek ez zuten huts egin nahi eta poliki aritu

ziren. Azkarrena Alberto Martinez izan zen, 16. postuan sartuta (28:29).

Sakandarrak Nafarroako Kros Laburreko Txapelketan

Tuterak hartu zuen, igandean, Nafarroako Kros Laburreko Txapelketa, Santa Quiteria zirkuituan. Antonio Etxeberriak 4. urtez irabazi zuen jarraian, hasieratik indartsu atera eta erritmo bizian aritu eta gero (11:25). 8 segundo atez zizkion Rodrigo Sanchez (11:33) eta 16 segundo Jaouad Boulamery (11:41). Israel Arbizu etxarriarra 39.a izan zen (12:58), Felix Ben-

jumea altsasuarra 61.a (13:41) eta Mikel Berdud altsasuarra 72.a (14:10).

Emakumezkoetan Maitane Melerok irabazi behar zuela ziru-dienean Vanesa Pachak erasoia jo eta ezinean geratu zen Melero, Pacha helmugara bakarrik helduta (13:31). Melero 9 segundora sartu zen (13:40) eta Nerea Abrego 12 segundora (13:43).

Aizkora Binakako Urrezko Aizkorako lehen finalerdia jokoan

Binakako Urrezko Aizkora Txapelketako lehen finalerdia igandean jokatu da, Iraetako plazan, 17:00etan. Otaegi eta Otaño Atutxa II.aren eta Mugertza II.aren kontra neurtuko dira. Beste finalerdia Zubiagak eta Nazabalek Rekondoren eta Erasunen kontra jokatu dute. Erasun min hartuta dago eta osatzen ez bada beste aizkolari batek hartuko du bere tokia. Orain-



dikez dazehaztu noiz jokatu den aipatu bigarren finalerdia. Finalerdia bi itzulira jokatu dira.

Saskibaloia



Altsasuko CBASKek asteburuak utzi duena

EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA	
2. MAILA AUTONOMIKOA	
ALTSASU CBASK 48 - PAZ DE ZIGANDA 70	
Sailkapena >>	
1. Gazte Berriak B	17+2 p
5. Altsasu CBASK	10-10 p
Asteburuko jardunaldia	
NAVARRO VILLOSLADA - ALTSASU CBASK	
(larunbatean, 17:45ean)	
GIZONEZKOEN JUNIOR MAILA	
1. MAILA AUTONOMIKOA	
ALTSASU CBASK 23 - SAN IGNAZIO 65	
Sailkapena >>	
1. Oncineda	19+2 p
11. Altsasu CBASK	11-5 p
Asteburuko jardunaldia	
SAN CERNIN BCN - ALTSASU CBASK	
(Igandean, 12:00etan, Iruñean)	
*OHARRA: Gainontzeko kategorien informazioa www.guaixe.net -en.	

Argi ikusi



hartu betaurrekoak!



Ikastetxe publikoak "D"
59
Ikastetxe elkarlanean

www.nize-d.com

Antsoain-Ezkaba Arantzako Eskola Arbizuko Herri Eskola Areso-Nazabal Atarrabia-Atargi Auritz-Auritzeko Eskola Aurizberri-Auzperri Barañain-Alaitz Bera-Ricardo Baroja Berriozar-Mendialdea II Betelu-Araxes Burlata-Ermitaberri Doneztebe-San Miguel Elizondo-San Francisco Javier Erro-San Esteban Estella-Lizarra-Remontival Etxalar-Landagain	Etxarri Aranatz-San Donato Gares-Puente la Reina Gares Garralda-Orreagako Ama Goizueta-Andres Narbarte Xalto Igantziko Eskola Iruña: Amaiur Ikastola (Iturrama) Bernart Etxepare (Txantrea) Buztintxuri (Buztintxuri) Elorri (Mendillorri) Hegoalde Ikastola (Arrosadia) Mendigoiiti (Mendillorri) Patxi Larrainzar (Rotxapea) San Frantzisko (Alde Zaharra) Sanduzelai (San Jorge) Irurtzun-Atakondoa Ituren Pulunpa	Iturmendi-Arrano Beltza Lakuntza-Luis Fuentes Larraitzar-Irurita Gotzaina Leitza-Erleta Lekunberri-Ibarberri Lesaka-Irain Luzaidoko Eskola Olazti-Domingo Bados Saldias Otsonta Sarrigurengo Eskola Sunbillako Eskola Urdiango Herri Eskola Uharteko Virgen Blanca Zizur Nagusia-Erreniega Zubiri-Xabier Zubiri Zugarramurdi-Urdazubi eta Batzango Herrietako Eskolak
--	---	---

Modelo D

Etorkizunerako matrikula ezazu

Hogei antzezle **suizidioaz**

Igandean, 19:00etan Irurtzango kultur etxean. Atikus teatro eta antzerki tailerrak

Arto Paasilinaren ideia batean oinarrituta ondu da *¿Morirse? No es para tanto* antzezlan. Nafarroan buru-hilketak duen transzendentziari buruzko azalpen labur batekin hasiko da obra. Jarraian antzezleek hipotesi bat proposatuko dute: buru-hilketa egin nahi dutenendako abantaila onenak dituen buru-hiltze kolektiboa.

Bere buruaz beste egiteko denetarik arrazoiak dituzten pertsonaiak pasako dira eskenatokitik. Sortzaileak saiatu dira gaia erres-

petuz eta lasaitasunez hartzen, batzuetan ikuspuntu transzendentarekin, dibertigarriarekin bes-teetan.

Elkarlanean

Atikus Teatro konpainiaren koordinazio eta zuzendaritza artistikoa sortu du obra. Hartan 20 antzezleek parte hartzen dute. Guztiak Aranguren, Etxauri, Irunberri, Oltza, Orkoien eta Irurtzango antzerki tailerretan arituak, orain elkarrekin ikuskizuna sortu dute. Izan ere, Angel Sagues Irigoienek zuzendutako lan horren helburuetako bat tailer bakoitzaren esperientzia komunean jartzea da, indarrak bilduz normalean egiten ez den ikuskizun bat eskainiz.



Urte batez egon dira antzezleak igandean emanen den obra prestatzen. Horien artean dago Pello Altzueta. Irurtzundarrak azaldu digunez, tailerren tailer horretan herriko 5 hasi ziren baina denbo-

ra faltagatik Altzuetak besterik ez du segitu. Larunbatetan entseatzen dute eta dagoeneko bere papera bostetan jokatu du. Bitartean, asteazkenean Irurtzango tailerarekin entseatzen segitzen du ere.

Lazkoz Donostiako Bertso Egunean



Larunbatean ospatuko da Bertso egunaren 40. edizioa Donostian. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak urtero mimoz prestatzen duen festak egun guztiko egitaraua du, bertsozaleak asetzeko adina. 18:00etan, Kursoaleko areto nagusiko ekitaldian parte hartuko du Eneko Lazkozek. Etxarriarrak beste 11 bertsolariarekin batera, gizakiak bizitzan zehar aurre egin beharreko krisiak ardatz dituen ekitaldian parte hartuko du.

bazterretik

Galder Gonzalez Larrañaga

Birziklatu, dudarik gabe

Sakanan ere birziklatzeari baiezkoa emango diogu hurrengo hila-beteotan, modu horretan errausketari atea itxiz. Hori da titular nagusia, nahiz eta horren atzean egongo diren beste irakurketak batzuk, ziurrenik Gipuzkoan erraustegia nahi duten berdinaren eskutik.

Ez da negozio makala: herriek ordaindu behar dute euren zaborra errausteagatik. Zaborra jasotzen duenak, erosi beharrean, kobratu egiten du beru "desagerrazteagatik". Ondoren erretzen du, horretarako diru publikoarekin egindako makinaria oso bat jartzen du martxan. Azkenik bigauza lortzen ditu: kutsadura handitzea, guztion poltsikotik ordainduko ditugun osasun arazoak sortuz; eta elektrizitatea saltzea, bere poltsikoak betez. Negozio boro-bila, ez balitz ematen duen ereduarengatik.

Errausketa txarra da, eta horretan ez dago eztabaida gehiegi egiterik. Errausketak kutsadura eragiteaz gain beste ideia bat ematen du: ez da beharrezkoa birziklatzea, erretzearekin dena konpontzen delako. Eredu okerra eta ondorio okerragoak.

Baina, zorionez, badira bestelako alternatibak. Mundu osoan zehar ari dira egiten, eta Euskal Herrian ez gara atzean geratuko. Katalunian, Italiako hainbat herri eta hiritan, Europan zehar, San Frantziskon... birziklatze maila altuak lor-

tzen dituzten ereduak daude. Gehienetan birziklatzeko derrigortasuna ezartzen da. Tamalez derrigortzen gaituztenean bakarrik egiten ditugu gauzak hobe. Baina behin ohitura hartuta, onurak berehalakoak dira.

Sakanan ere hondakinak modu berezian bilduko ditugu. Lanpostuak sortuko dira, osasuna hobetuko da, gutxiago kontsumituko dugu... zaila da honen aurka egotea, baina, tamalez, badira aurka daudenak. Erosotasuna jartzen da aitzakia gisa, eta ez zaie arrazoirik falta: kotxean gerrikoa jartzea, musika gaueko 5etan jo ezin izatea edo ospitalean erretzeko kalera atera behar izatea ere guztion hobe beharrez jarritako arauak dira. Ados edo kontra egon gaitezke, aldaketak zailak izaten dira, baina laster ikusten dugu erabakia ona izan dela. Hondakinekin antzekoa gertatuko zaigulakoan nago: hila-bete batzuen buruan erraza eta garbia dela ikusten dugunean, %75etik gora birziklatzeko gai garela ikusten dugunean... orduan bai, orduan konturatuko gara aldaketak merezi duela.

Ez badidazue sinesten, Interneten ere badira lotura batzuk gaiari buruz: <http://www.argia.com/blogak/zero-zabor/> <http://ondoegiteragoaz.info/> http://eu.wikipedia.org/wiki/Atez_ateko_zabor_bilketa <http://www.hernaniatezate.net/> <http://www.raccollaportaaporta.it/servizio-porta-a-porta/utenzedomestiche.html>

Komeriak haur eskolan



Lara Larika, igandean, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean

Zirika Zirkus urte bat eta 5 urte bitarteko haurrei zuzendutako lan batekin etorriko da etzi: *Lara Larika*. Ikuskizunari izenburua bi protagonistek ematen diote, amonak eta ilobak. Lara ta Larika, haur eskolan geratu dira, bere lagunei ipuinak kontatzeko. Larika ez da oraindik iritsi eta bitartean Lara

izebak txokolatea prestatuko du. Bai berak bai ilobak txokolatea hartzea, irakurtzea, abestea, ipuinak kontatzea eta beste dituzte gogoko.

Horrela, txikiak kantuak, malabareak, dantzak, akrobaziak eta umorea duen ikuskizun batean sartuko dituzte Maribel Martinezek (Larika) eta Ainhoa Juanizek (Lara). Ikuskizuna despeditzean haurrek tailertxo batean parte hartuko dute antzezleekin.

Marionetak aktoreekin batera eskenatokian

Gaur, ostirala, 22:30ean, Olatzagutiko kultur etxean. Cobaya teatro.

40 urte baino gehiagoko eskarmentuarekin, Euskal Herriko antzerki talde beteranoetako batek bisitatuko gaitu: Cobaya teatrotok. Izaskun Fernandez, Pedro Calleja eta Javier Perez antzezleek, azken horren zuzendaritzapean *Una + uno = tres* obra taularatuko dute. Horretarako aktoreak eta txotxongiloak tartekatuko dituzte.

Izan ere, lan faltagatik txotxongilo izateari utzi dion Publioren bizipenak dira antzezlanaren ardatz. Aurrera egin behar eta Che Publio izeneko taberna zabalduko du. Eta han elkartuko dira, Publio bera, Helen eta Pedro eta...

Neguko argazki lehiaketa

Argazki lehiaketaren oinarriak:

Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra aurkeztu dezake. Neguko argazkiak izan da. Argazkiak Sakanan eginak izan behar dute (Aralar, Andia eta Urbasa mendiak barne). Argazki digitalak bakarrik onartuko eta jpg formatoa izatea. Bierrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dituzte Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan. Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak martxoaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira Bierrik Fundazioaren Facebook profilaren bitartez edo @Guaixe twitter kontuaren bidez, #guaixeneguko aipamena eginez. Irabazleak nortzuk diren martxoaren 28an jakinaraziko da, astekarian. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.

Ikasten, idazten

Euskaltegiak ikasleei eta mintzaki-deei zuzendutako nanoipuin lehiaketa deitu dute

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatutako lehiaketan euskara ikasten edo mintzakide programan parte hartzen ari diren sakandarrek parte hartu dezakete. Banaka edo taldeka, nahi beste testu aurkezteko aukera izanen dute parte-hartzaileek. Nanoipuin bakoitzak, gehienez, 100 hitz izanen ditu. Euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute. Egileek euren sormen lanetan Sakanari buruzko erreferentzia bat sartu beharko dute.

Hiru maila izanen dira. B1 maila arteko ikasleak batean ariko dira. B2 maila arteko ikasleendako beste maila bat izanen da eta C1 maila arteko ikasleendako azkena.

Lanak eta datuak plika sistema erabiliz aurkez daitezke, edo euskara@sakana-mank.com helbidera bidaliz (PDF formatuan). Martxoaren 31ra arteko epea dago nanoipuinak aurkezteko. Lehiaketak aurrera egiteko, gutxienez, 10 lan aurkeztu beharko dira.



Martina animaziozko film-laburraren aurre-estreinaldia bihar Irurtzunen

Urko Mauduit irurtzundarrak zuzendua, gidoia Nerea Baldarena da eta soinu efektuak Jorge Cordonenak.

Larunbatean, 19:30ean (euskaraz) eta 20:30ean (gaztelaniaz) Irurtzungo Kultur Etxean. Sarrera: euro 1 (6 urte artekoak doan). Sarrerak salgai Pikuxarren eta Kultur Etxean.

Martina txikiak amets handiak ditu, ametsai leihoa ireki eta haiekin jolastea atsegin du...

Hori da Urko Mauduit zuzendari irurtzundarraren begiradapean Irude Koop lantaldeak prestatu duen 5 minutu inguruko 3D animaziozko laburmetraiaren sinopsia. 4-8 urte bitarteko haurrei zuzendua dagoen arren, publiko guztiarendako aproposa den film laburra da *Martina*. Nafarroako Gobernuak INAAC fundazioak lagundutako proiektua da, eta irailan mustuko da ofizialki. Ordu-ra arte ezinen da ikusi, baina bihar, larunbatean, Irurtzungo Kultur Etxeak Martinaren aurre-estreinaldia hartuko du.

“Duela 4 urte, Odisea etxaldeen gure azken film-laburra bukatu ondoren, beste proiekturen bat egiteko ideien bila hasi ginen. Orduan Natalia Soriak berak marraztutako ipuin txiki bat erakutsi zidan, *Martina y la luna* izena zuena. Bertan Martina azaltzen zen, jakin-min eta imajinarioz

beteriko begi handi horiekin. Ilargiaren erlazio berezieta maitagarri hori ere azaltzen zen. Orduetik maitemindu nintzen ni Martinaz eta bere munduaz. 3D animaziorako oso aproposa eta ederra zela iruditu zitzaidan eta hasiera hasieratik garbi izan nuen horrelako istorio bat kontatu nahi nuela” azaldu digu Urko Mauduitek.

Filma egin ahal izateko finantziarioa bilatzen epe luzea eman dutela gaineratu digu Mauduitek, eta Nafarroako Gobernuak film-laburren diru-laguntzen deialdian 3. aldiz aurkeztu zirenean proiektua aurrera ateratzeko finantziarioa lortu zutela. Baina, jakina, horretaz gain lagunen eta ezagunen laguntza izan du Mauduitek eta, horregatik, filmak “auzolanaren izpiritu” duela nabarmendu du.

Laguntza asko

Irude Koop 3D animaziozko lan-

taldean Mikel Gonzalez, Ioseba Salaberri, Alberto Lazaro eta Urko Mauduit bera daude, eta momentu puntualetan Ester Iriarte, Ianire Berriain, Gorka Bolea eta hainbat kideren laguntza dute. Bospasei hilabete eman zituzten irudiak sortzen, 3D animaziozko prozesuak egiten. Gero, beste lan espezifikotarako beste pertsonen laguntza izan dute. Esaterako, Nerea Balda irurtzundarrak gidoia egokitu zuen, Igor Razkin (euskaraz) eta Ion Barbarinek (gaztelaniaz) narratzaile lanak egin dituzte, soinu efektuak sortzen eta grabaketa lanetan Jorge Cordon irurtzundarra aritzen zen –“betiko lankidea” Mauduitek esanetan–, Martinaren

Martina

2013 urtea. 5 minutu.
Zuzendaria: Urko Mauduit
Lan taldea: Irude Koop.
Produktzioa/ekoizpena: Sistema Formación.
Soinu banda: Kontxi Lorente
Gidoia: Nerea Balda
Soinu efektuak: Jorge Cordon.

jatorrizko soinu banda Kontxi Lorentek egin du –jazz pianista da Lorente, “artista handia” Mauduitek esanetan eta larunbateko aurre-estreinaldian sorpresa emango omen du– eta, jakina, alboan dituzten kideen laguntza ezinbestekoa izan da ere.

Maria Markotegi sarietarako lanak aurkez daitezke

Sakanako ikastetxeetako ikasleek eta hezkuntza premia bereziak dituztenek aurkeztu ditzakete

Narrazio laburrak, poesiak edo komikiak aurkez daitezke Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatutako sariketan. Ikasle bakoitzak lan bana aurkez dezake sail bakoitzean. Mank-en Lakuntzako egoitzako erregistroan aurkeztu beharko dira lanak, plika sistema erabiliz, martxoaren 27rako.

Sariketara aurkeztu daitezkeen lanak aurretik saritu eta argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izan beharko dute. Gaia librea da eta haiek ontzeko garaian luzera jakin bat izan beharko dute sortzaileek. Olerkien kasuan 14 eta 40 bertso arteko poesia sortak aurkez daitezke. Orri bakarra eta 5 artean izan beharko dute komikiak (txuri beltzez edo koloretan, A4 tamainan). Narrazio laburretan mailaren arabera izanen da luzera: LH 5. eta 6. mailakoek 1 eta 3 orri artean idatzi beharko dute; DBHkoek 2 eta 5 orri artean eta, azkenik, Batxilergoko eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikas-

leak 3 eta 8 artean.

Denak saridun

Sariketako parte-hartzaile guz-

tiek oroigarria jasoko dute eta, gainera, lehiaketako 3 mailetan, 4 kategorietan bina sari banatuko dira; 24 guztira.

Sariak

Narrazio laburren saila

Kategoria	Saria	Zenbatekoa
LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena	1. saria	50 €
LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena	2. saria	40 €
DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena	1. saria	70 €
DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena	2. saria	60 €
DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena	1. saria	90 €
DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena	2. saria	80 €
Batxilergokoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena	1. saria	110 €
Batxilergokoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena	2. saria	100 €

Poesia saila

Kategoria	Saria	Zenbatekoa
LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena	1. saria	50 €
LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena	2. saria	40 €
DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena	1. saria	70 €
DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena	2. saria	60 €
DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena	1. saria	90 €
DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena	2. saria	80 €
Batxilergokoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena	1. saria	110 €
Batxilergokoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena	2. saria	100 €

Komiki saila

Kategoria	Saria	Zenbatekoa
LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena	1. saria	50 €
LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena	2. saria	40 €
DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena	1. saria	70 €
DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena	2. saria	60 €
DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena	1. saria	90 €
DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleena	2. saria	80 €
Batxilergokoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena	1. saria	110 €
Batxilergokoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena	2. saria	100 €

Eguneroko objektuen soinua



Ilbeltzaren 26an, larunbatean, 20:30ean Altsasuko Iortia Kulturgunean, Toom Pak konpainia

Toom Pak konpainiako 5 kideak bihar Iortia eskeinatokiaz jabetuko dira eta ezerezetik ikuskizun bat sortuko dute, ongi pasatzeko edota artea sortzeko ezer gutxi behar baita. Musikalaren abiapuntua da “ahal den guztia aprobetxatzea eta gure buru-azkartasuna erabiltzea”.

Gorka Gonzalezek, Miguel Parejak, Manuel Lealek, Miguel Angel Velayosek eta Felipe Dueñasek perkusio tresnetan bihur-

tuko dituzte pertzak, erosketa poltsak, hodi puskek, makilak, botilak, gasolina bidoi hutsak, gurpilak, baloiak... Hiriko objektuak, hiriko soinuak. Guztia mugimendu asko, ke eta umore ukitu izugarriekin lagunduta.

Ikuslearen erritmoa, entzume-na, ikusmena eta usaimena piztuko duen kontzertua. Energiak betetako erritmo kutsakorren bidez aire brasildarrak, arabiar-andalusiak, technoak edo klasikoak ematen dituzte. Azken finean, musika hizkuntza gisa erabilia, birziklatzeko kontzientziaren beharra zabalduko dute, ongi pasatzea aldarrikatuz.

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 60%	euria: 80%	euria: 60%	euria: 83%	euria: 13%	euria: 13%	euria: 20%
Min: 0 Max: 8	Min: 6 Max: 8	Min: 5 Max: 9	Min: 3 Max: 9	Min: 4 Max: 11	Min: 7 Max: 13	Min: 4 Max: 13

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	13.4	-2.1	105
Altsasu	12	-0.1	129
Aralar	6.5	-6.1	88
Urbasa	10	-3	113

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
27	3	10	17

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA

KOLOREA
GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253
Arkinorru Industrialdea, OLAZTI
Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Surre irudimena zure altxorra



Kalorikoa, Eskumak, Bisita handiak, Karleak, Dena eta komunikazioan adituak

GUAIXE
KOMUNIKAZIOA
argi@guaixe.net
948 562 107

>> 11 galdera

Izaskun Beunza
Arkitektoa

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



Zure negozioarendako atea interneten 1.000 bisita egunero



www.GUAIXE.net

1.- Zertan datza Europak eraikinez onartutako legea?
Legeak dio eraikinek efizientzia energetikoaren zertifikazio bat behar dutela. 2002/91/CE Direktiba onartu dute, 2013ko ilbeltzaren 1etik lehenetik zeuden eraikinetan zertifikazio hori beharrezkoa dela esaten duena. Beraz, beharrezkoa izango da eraikin bat saltzeko, baita alokatzeko ere.

2.- Nola lortzen da eraikuntzen efizientzia energetikoaren zertifikazioa?
Zertifikazioa teknikari batekin behar du. Zure eraikuntza kalifikatzen du A mailatik (onena, emisio gutxi) G mailara (okerrera, emisio asko). Maila horrek adierazten du energia kontsumo aldetik zein eraikin den hobea, markatzen dituen CO2 emisioen arabera.

3.- Zenbat energia aurreztu dezake A maila duen etxe batek G maila dutenekin alderatuz?
Tokiaren arabera ezberdina da.

4.- Zergatik onartu zuten legea?
Europatik dator. Europako gainerrako estatuetak eraikinak saltzeko edo alokatzeko egiten da.

5.- Nafarroan zein egoeratan dago? Noiz onartuko dute?
Dirudienez aurki onartzekoa da, baina tarte bat utziko dute ohitzeko. Apiriletik aurrera beharrezkoa izango da eraikuntza efizientzia energetikoaren zertifikazioa eraikin bat saltzeko edo alokatzeko.

6.- Nola egiten dira zertifikazioa lortzeko txostenak? Zein da zure lana?
Teknikaria eraikina aztertzea da. Tokiaren arabera, arkitektonikoki nola dagoen egin kontuan hartzen da. Eraikinaren hormak,

zorua, estalkia, isolamendua eta beste begiratzen dira. Baita instalazioak kontuan hartzen dira: zoru termikoa daukan, edo nolako berogailua daukan, aire girotua duen edo ez. Leihoak ere kontuan hartzekoak dira. Datu horiek guztiak software batean sartzen dira eta programa horrek ematen dizu eraikinaren kalifikazioa.

7.- Txostenarekin zer egiten da?
Txosten horrekin kalifikazioa lortzen duzu, eta kalifikazio horrekin etiketa bat. Beharrezkoa izango duzu iragarkia jartzen duzunean. Txostenean agertzen dira zer aldaketak egin beharzaion eraikin horri kalifikazioa hobetzeko.

8.- Eta jabeek aldatetako egiten dituzte?
Orain arte ez da beharrezkoa izan; bakoitzaren esku egon da. Denok dakigu leiho zahar batzuk badauzkagu, egurrezkoak, isolamendurik gabe edo apurtuta daudenak hortik airea sartzen dela; beroa hortik joaten zaigula eta kanpoko hotza sartzen dela. Denok dakigu zein abantaila duen, adibidez, zure etxebizitzan leiho berri batzuk jartzeak. Baina hortaz aparte gauza asko egin daitezke.

9.- Zer gauza egin daitezke energetikoki efizienteagoak izateko?
Neurriak sailkatu egiten dira: inbertsioa eskatzen dutenak edo inbertsioa eskatzen ez dutenak. Beharrez dutenen artean denon esku dago eguneroko jardueretan gauzak hobetzea. Adibidez, ura aurrezteko denon esku dago; edo gure bero-

gailuaren temperatura gradu bat jaisten badugu %7 energia aurrezten ari gara. Garrantzitsua da ere berogailua eta gailu hauek guztiak garbi izatea; azkenean zikinkeriak ere efizientzia galdu egiten du. Jendeak jakin behar du nola aineratu etxea; eguzkia erabiliz nola aurreztu dezakegun edo kontrolatu behar ditugun gure ateak eta leihoak dauzkaten isolamenduak. Isolamendua oso garrantzitsua da; jendea kontzientziatu behar da.

10.- Orduan ez da bakarrik energia aurrezte, ekonomikoki ere aurreztu daiteke?
Azkenean dena dago lotuta. Erregai fosilak agortzen ari dira eta kontuan hartu behar dugu hori. Aldez aurreko inbertsio bat luzarora ekonomikoki aurrezki bat da. Adibidez, hamar metroko isolamendua jartzea edo leihoak aldatzea proposatzen dugunean, azaltzen badiegu inbertitutako diru hori gas fakturretan aurreztuko dutela, orduan hobeto ikusten dute.

11.- Arkitekto izanda, nola interesatu zinen energia berriztagarrietan?
Energia berriztagarrietan master bat egin nuen eta praktikak Iruñeko enpresa batean egin nituen. Auditoria energetikoak edo eraikuntza efizientzia energetikoaren zertifikazioa egin nahi dutenek 617 998 334ra deitu dezakete.

OHARRA >>>

Elkarrizketa osorik www.guaixe.net.